# LEITZARAN BIOTOPO BABESTUA

## Gipuzkoako natur eremuetako ibilbideak




copyright © SUA edizioak

# Leitzaran

Es un valle despoblado, caso único en Gipuzkoa, pero no siempre ha sido así. Sus cimas guardan destacados monumentos megalíticos. Sus laderas fueron horadadas por minas hoy olvidadas. Sus regatas movieron molinos, ferrerías y, aún hoy, centrales hidroeléctricas. Un tren lo cruzó de norte a sur, como hoy lo recorren los senderistas siguiendo su rastro. El valle de Leitzaran, con sus limpias aguas y sus bosques de ribera, se apresta para conservar su patrimonio cultural y recuperar su esplendor natural.



## Biotopo babestua

**Jenderik gabeko ibarra da Leitzaran, Gipuzkoan bakarra, baina beti ez da horrela izan. Tontorretan, han-hemen, multzo megalitiko apartak daude. Mazeletan hamaika meatze zulatu zituzten, burdina helburu. Errekek errotak, olak eta zentral hidroelektrikoak elikatu dituzte. Trenak goitik behera zeharkatu zuen, orduko trenbidea egun ibilbide atsegina delarik. Leitzaran, bere ur garden eta haltzadi ederrekin, prest da kultur-ondarea zaindu eta natur-balioak berreskuratzeko.**

## Leitzaran, BOST URRATSETAN

**LEITZARAN IBAIA,** ur gardenak haltzadien itzalpean. Leitzaran ibaiak 22 kilometro egin eta 400 metroko desnibela gainditzen du Gipuzkoara Urtotik sartzen den unetik Andoianera iritsi arte. Herrialdeko urik aratzenak daramatza, amuarrainen, aingiren, ezkailuen eta bogen bizileku. Uhandre eta desman piriniarrak ere inguruotan egoten dira. Ibai-ertzetan Gipuzkoako haltzadirik onena aurkituko dugu, Leitzaran ibaiaren ibilbide sigi-sagatsua eta bere ibaiadarretako zati asko itzalpe gozoan dituena. Horregatik dira ibaia eta berau elikatzen duten errekastoak biotopo babestuaren muina (76 ha), inguruko lurraldeak (5.944,5 ha) babes-eremu izendatu dituzten bitartean. Ura ubide sare trinko baten protagonista ere bada, bide horietatik Leitzaran ibarreko zentral hidroelektriko ugariak mugitu ditu eta.

**OTITA,** Leitzarango sarbidea. Andoaindik kilometro gutxitara, Otitak bailarako ezaugarri gehienak biltzen ditu. Bertan, ibaitik hurbil, errepidea eta Plazaolako trenbide zaharra –gaur egun bide berdea– elkartzen dira; aisialdirako gune gisa egokitu dute eta hor dago bisitarien harrera-etxea, uraren interpretazio-zentroa eta hilketarik gabeko arrantza eskola. Gainera, Unanibiako zubi magikoa ere bertan dago, sorginzubi ere esaten diotena. Leitzaran ibai bihurria zeharkatzen duten zubietako bat da, baina beste asko badira, batzuk erraldoiak, Auzokalte kasu, besteak behialakoak eta ia ezkutukoak, Mustarkoa esate baterako.

**PLAZAOLA,** bailara zeharkatzen duen bidegorria. 1904an tren txiki batek ekin zion Plazaola eta Bizkotxeko mea-tzeetako burdina garraiotzeari. Hamar urte geroago, trenbidea Donostia eta Iruñeraino iristen zen. Plazaolako tren txiki hark 31 tunel, hamalau zubi eta sei geltoki bisitatzen zituen Leitzaran ibarreko 20 kilometroetan. Horrela egin zuen 1957an kendu zuten arte. Gaur egun, tren txistukari haren ordez, oinezkoak eta txirrindulariak dira trenbide zaharraren ibilbidea zapaltzen dutenak, Olloki edo Ameraun bezalako geltoki zaharretatik igaroz. Nahi duenak Andoaindik aurrera, Urnietarantz, jarraitzea dauka edo, beste aldetik, Leitza eta Larrun alderantz.

**BIZKOTX ETA LORDITZ,** meatze zaharrak. Leitzaran hamaika meazuloko bailara da, batez ere bere eskuin ibarrean. Plazaola eta Bizkotx, Lorditz aldea, Mustar, Meatzeberrieta eta Malo dira



meatzariek zulatutako lekuetako batzuk, batez ere burdinaren bila. Jarduera hartatik, meatze sortaz gain, mea erretzeko labe ikusgarriak gelditu zaizkigu, Mustar edo Bizkotxen adibidez, gure industria-ondarearen ale preziatuak.

**ADARRAMENDI,** megalitoz hesituriko gailur klasikoa. Gipuzkoako tontor ezaugarrietako bat, Adarramendi (813 m), Leitzaran ibarreko muga dugu, ipar aldetik. Monumentu megalitiko ugari duen gailur lerro batean kateaturik, inguruko Eteneta adibidez, Adarramendi harrespilen mendebaldeko muga misteriotsua da. Bertatik hurbil, Usabelartzak zohikaztegi aparta zaintzen du. Bailarako beste leku batzuetan bertako basoak barreiatzen dira, batez ere pagadiak eta harizti hibridoak, azken horiek Gipuzkoan oso urriak direla.

## Leitzaran en CINCO PASOS

**EL RÍO LEITZARAN,** aguas transparentes entre alisedas. El río Leitzaran recorre una veintena de kilómetros y salva 400 metros de desnivel desde su entrada en Gipuzkoa por el alto de Urto hasta llegar a Andoain. Sus aguas, las más prístinas del territorio histórico, son el hábitat de truchas, anguilas, piscardos o madrillas, además, de anfibios como tritones y desmanes. En sus riberas crece la aliseda mejor conservada de Gipuzkoa, que se extiende durante



gran parte del serpenteante recorrido del río Leitzaran y de muchos de sus pequeños afluentes. Es por ello que el río y sus riberas conforman el biotopo protegido (76 has) mientras que el resto del valle está considerado como zona periférica (5.944,5 ha). El agua también protagoniza acueductos y una tupida red de canales por los que ha llegado durante años a las numerosas centrales hidroeléctricas distribuidas a lo largo de la ribera del río Leitzaran.

**OTITA,** la entrada a Leitzaran. A pocos kilómetros de Andoain, Otita concentra gran parte de los atractivos que caracterizan al valle. En este punto, cerca del río, se juntan la carretera y la antigua vía del tren de Plazaola, hoy vía verde; está acondicionado como zona de esparcimiento y es la sede del centro de acogida de visitantes, centro de interpretación del agua y escuela de pesca sin muerte. Además, en sus inmediaciones está el mágico puente de Unanibia, el de las brujas. El primero de los muchos puentes que cruzan los meandros del Leitzaran, algunos descomunales, como Auzokalte, otros discretos y ancestrales, como el de Mustar.

**PLAZAOLA,** el bidegorri que surca el valle. En 1904 un pequeño tren comenzó a transportar el hierro de las minas de Plazaola y Bizkotx. Diez años después había ampliado su recorrido

**En muchos tramos del río Leitzaran el bosque de ribera se vuelca sobre el curso fluvial convirtiéndose en una auténtica galería. En este entorno de gran valor natural viven algunas de las especies animales de mayor interés del biotopo, como el desmán del Pirineo y el tritón pirenáico. El curso del río forma una pintoresca cadena de meandros.**



para enlazar Donostia con Iruñea. El trentxiki de Plazaola cruzaba el valle de Leitzaran recorriendo en 20 kilómetros 31 túneles, catorce puentes y seis estaciones. Así fue hasta que desapareció, en 1957. Hoy, en vez de locomotoras son senderistas y cicloturistas los que recorren la antigua vía, por estaciones abandonadas como Olloki o Ameraun. El recorrido puede prolongarse más allá de Andoain, dirección Urnieta, o, por el otro extremo, por Leitza y Larraun.

**BIZKOTX Y LORDITZ,** las viejas minas. Leitzaran es un valle horadado por las minas, sobre todo en su margen derecha. Desde Plazaola y Bizkotx, la regata de Lorditz, Mustar, Meatzeberrieta y Malo son algunos de los puntos en los que se registró actividad minera, sobre todo a la búsqueda de hierro. Además de minas, nos quedan formidables hornos como los de Mustar o Bizkotx, que forman parte de nuestro patrimonio industrial.

**ADARRAMENDI,** una cima clásica cercada por megalitos. Una de las cumbres referenciales de Gipuzkoa, Adarramendi (813 m) cierra el valle por el Norte. Forma parte de un cordal en el que abundan los monumentos megalíticos, caso de Eteneta, y que al mismo tiempo es misterioso confín occidental de los cromlech. En las inmediaciones, Usabelartza custodia una importante turbera. En distintos puntos del valle se pueden encontrar bosques de cierta importancia, especialmente hayedos y robles híbridos, estos últimos muy raros en Gipuzkoa.




## Plazaola

### Por la antigua vía del trentxiki

Cerca de veintidós kilómetros recorría aquel humilde trentxiki cuando salía de Andoain y, tras pasar por Plazaola, llegaba a la muga con Nafarroa. Otros tantos puede hacer el senderista por esa ruta, acondicionada hoy como paseo. Quien inicie el recorrido se adentrará por las riberas del río Leitzaran. A cada paso irán surgiendo las alisedas, las centrales hidroeléctricas, los canales, los restos de vetustas aceñas y ferrerías, las antiguas minas y muchas otras sorpresas que jalonan el camino. Desde Andoain hasta la vieja estación de Plazaola suma veinte kilómetros de sendero. Hay que cruzar 31 túneles. Por ello es conveniente llevar chubasquero y linterna. El camino está abierto tanto a ciclistas como a peatones. En cualquier caso, conviente tener en cuenta que, en ocasiones, también es utilizado por vehículos, como los camiones que extraen madera.



## Plazaola

### Trentxikiaren bidetik

Hogeita bi kilometroko bidea egiten zuen antzinako trentxiki hark Andoaindik irten eta Plazaolatik Nafarroako mugaraino iritsi arte. Beste horrenbeste egin ditzake mendizaleak xenda horretatik gaur egun, paseorako egokiturik dago eta.

Bide horri ekingo dionak Leitzaran ibaiko ibarrean barrena abiatuko da. Pauso bakoitza eman ahala, haltzadiak, zentral hidrolektrikoak, ubideak, antzinako errota eta burdinolak, meatzetako aztarnak eta hamaika ezusteko gehiago agertuko zaizkio.

Andoaindik Plazaolako geltokiraino (Nafarroan sartu aurretik, azkena) hogei bat kilometro dago. 31 tunel zeharkatu behar dira. Horregatik, komenigarria da xira eta esku-argiak eramatea. Ibilbidea zabalik dago oinezkoentzat nahiz txirrindularientzat. Noizean behin, egurra ateratzen ari diren kamioiak ere ager daitezke.

## BIOTOPOAREN GIDA

**Sarbideak** | **Museoak** | **Landa Turismoa** | **Garraio Publikoa**

Leitzaranera heltzeko lau herri izan daitezke abiapuntu.

**1** Alde batetik, **ANDOAIN**. **N-1**ek herrian bertan utziko gaitu eta, bertatik, **GI-3091** errepidea aukeratu. Seinaleei jarraituta, kilometro bi egin eta gero, Leitzaran bailararen atean utziko gaitu. ⇨ **OTITA** da paraje hori eta bertan amaitzen da errepidea.

**2** **Gi-2430** errepidea **TOLOSATIK** Nafarroako mugaraino doa. Bidean, Elduain eta Berastegi azaltzen dira. Biak izan daitezke Leitzaranera hurbiltzeko abiapuntu, bereziki Berastegi, bertan baitago Urto mendatea, ⇨ **PLAZAOLARA** hurbiltzeko aterik hurbilena.

**3** **A-15** autobideak **IRURTZUN** eta **ANDOAIN** lotzen ditu. ⇨ Irteera bana du **ANDOAINEN** eta **BERASTEGIN**.

**4** **URNIETATIK** ere, **GI-3271** errepideak ⇨ **BESADEGIRAINO** eramango gaitu. Horixe dugu Adarra eta Leitzaran ibarreko ipar aldeko mendietan hamaika osteratxo egiteko abiapuntua.

### Museoak:

**URAREN INTERPRETAZIO ZENTROA ETA ARRANTZA ESKOLA**. **Otita parkea**, Leizotz auzoa 48, behea. Andoain. Museo honetan ura da protagonista eta, nola ez, Leitzaran ibaia.

Horrez gain, biotopoan sartzera doazenentzat, **BISITARIEN ETXEA** ere bada, Leitzaran aldean ibilbideak egiteko eta inguru hori hobeto ezagutzeko informazioarekin.

Eta heriotzarik gabeko **ARRANTZA ESKOLA** ere bertan da.

Informazio gehiago:

☎ 943 300 929. www.**leitzaran**.org

**BURUNTZAKO SAN MARTIN PARKE ARKEOLOGIKOA:** Andoaingo eliza zaharra egon zen lekuan aztarnategi arkeologikoa atondu eta museo itxura eman diote.



### Landa-etxeak:

**URNIETA:** **Montefrío** ☎ 943 557 158 / 609 937 455 eta **Altzibar Berri** ☎ 943 557 097 / 626 551 429.

**ANDOAIN:** **Txertota** ☎ 943 590 721

**VILLABONA:** **Urresti** ☎ 943 690 444 / 653 722 363.

**BERASTEGI:** **Baztarretxe** ☎ 943 683 386 / 635 726 687 **Arginenea** ☎ 638 182 998 / 638 182 998 eta **Ugalde** ☎ 943 655 834 / 649 899 811.

### Garraio publikoak

**TSST.** Donostia ▸ Tolosa linea. Andoainen eta Villabonan geralekuak ditu. ☎ 943 361 740. www.**tsst**.info.

**GARAYAR:** Donostia ▸Hernani linea. Andoainen geralekua. ☎ 943 556 662.

**TOLOSALDEA BUS.** Tolosa eta Berastegi lotzen ditu. ☎ 943 650 621

**RENFE.** Aldirietako tren sareak geralekuak ditu Andoainen eta Villabonan. ☎ 902 240 202 . Informazio gehiago: www.**renfe**.com



## GUÍA DEL BIOTOPO

**Accesos** | **Museos** | **Turismo Rural** | **Transporte Público**

Cuatro pueden ser las localidades desde las que llegar a Leitzaran:

**1** En primer lugar, **ANDOAIN.** La **N-1** nos dejará en esta localidad y, desde allí, debemos tomar la **GI-3091.** Siguiendo las señales y tras recorrer algo más de dos kilómetros llegaremos a la puerta de Leitzaran: ⇨ **OTITA**, punto donde se termina la carretera.

**2** La **Gi-2430** conduce desde **TOLOSA** hasta la muga con Nafarroa. En el camino recorre Elduain y Berastegi, ambas localidades perfectos puntos de partida para una excursión a Leitzaran. Especialmente Berastegi, dado que en este municipio se encuentra el alto de Urto, el acceso más cercano a ⇨ **PLAZAOLA**, ya en Leitzaran.

**3** La autovía **A-15** **IRURTZUN-ANDOAIN** cruza la zona y tiene salidas en ⇨ **ANDOAIN** y **BERASTEGI**.

**4** Desde **URNIETA**, la **GI-3271** nos llevará hata ⇨ **BESADEGI,** punto de inicio de numerosas excursiones montañeras por el Adarra y zona norte del biotopo de Leitzaran.

### Museos:

**CENTRO DE INTERPRETACIÓN DEL AGUA Y ESCUELA DE PESCA. Parque de Otita**, barrio Leizotz 48, bajo. En este museo el agua es el principal protagonista y, como no podía ser de otra manera, en este caso la del río Leitzaran. Además, también es centro de acogida para quienes acceden al biotopo. En este punto se facilita abundante información sobre el Leitzaran, sus valores y los recorridos. Finalmente, también cuenta con una escuela de pesca sin muerte. ☎ 943 300 929. www.**leitzaran**.org

**PARQUE ARQUEOLÓGICO DE SAN MARTIN DE BURUNTZA:** En el lugar en el que estuvo la antigua iglesia parroquial de Andoain se ha acondicionado para visitas con características de museo el yacimiento arqueológico allí existente.



**URNIETA:** **Montefrío** ☎ 943 557 158 / 609 937 455 y **Altzibar Berri** ☎ 943 557 097 / 626 551 429.

**ANDOAIN:** **Txertota** ☎ 943 590 721

**VILLABONA:** **Urresti** ☎ 943 690 444 / 653 722 363

**BERASTEGI:** **Baztarretxe** ☎ 943 683 386 / 635 726 687 **Arginenea** ☎ 638 182 998 / 638 182 998 y **Ugalde** ☎ 943 655 834 / 649 899 811.

**TSST.** Línea Donostia ▸Tolosa. Paradas en Andoain y Villabona. ☎ 943 361 740. www.**tsst**.info.

**GARAYAR:** Línea Donostia ▸Hernani. Parada en Andoain. ☎ 943 556 662.

**TOLOSALDEA BUS.** Enlaza Tolosa con Berastegi. ☎ 943 650 621

**RENFE.** La red de cercanías de la compañía ferroviaria cuenta con paradas en Andoain y Villabona. ☎ 902 240 202 www.**renfe**.com



